

Musikaren argitaratzea Euskal Herrian*

(The publication of music in the Basque Country)

Arana Martija, José Antonio
Karmelo Etxegarai, 6
48300 Gernika-Lumo

BIBLID [1137-4470 (2000), 12; 35-40]

Jose Erbiti Segarra (1852-1900) musikari, musikagile, pedagogo eta argitaratzailearen mendeurrenean, hitzaldi honek Erbitiren musika argitaratzaile alderdiaz dihardu. Bidenabar, Euskal Herriko musika argitalpenaren historia bista-ratzen digu. Guillen de Brocar-ek, Iruñea, 1494, eginiko lehen musika-inprimatze hartatik, egia esan, datu gutxi iritsi zaizkigu gure herriko grabatzaile, argitaratzaile eta inprimatzaileei buruz. Euskal musikari baten, Gonzalo Martínez de Bizcargui, ondoko argitalpena Burgosen egin zen 1511n. Harrezkerotik, asko izan dira, eta hainbat hiritan –Madril, Paris, Leipzig...–argitaraturikoak. Erbitik Bilboko Dotesio izan zuen lehiakide nagusia, Madrilen sortu zuen bere argitale-txea 1875ean eta 1891n Donostiara aldatu zen, eta gaur egun ere bertan dirau argitalexe horrek.

Giltz-Hitzak: Grabatua. Inprimatze eta argitalpena. Historia. Jarduera Euskal Herrian zein kanpoan. Jose Erbiti, argitaratzailea. Ikerketa premia.

En el centenario de la muerte de Jose Erbiti Segarra (1852-1900), músico, compositor, pedagogo y editor, la conferencia se desarrolla sobre esta última faceta, haciendo un recorrido por la historia de la edición musical en el País Vasco. Desde la primera impresión de música hecha en 1494 por Guillen de Brocar en Pamplona, tenemos pocos datos referidos a grabadores, editores e impresores en el país. La siguiente edición de una obra de músico vasco, Gonzalo Martínez de Bizcargui se hace en Burgos en 1511, y después son muchas las ediciones hechas en Madrid, París, Leipzig, etc. Erbiti, que compitió principalmente con Dotesio, de Bilbao, creó su editorial en Madrid en 1875, traslada-da a San Sebastián en 1891, donde aún permanece.

Palabras Clave: Grabado. Impresión y edición. Historia. Actividad en el País Vasco y fuera de él. José Erbiti, editor. Necesidad de investigación.

A l'occasion du centenaire de la mort de José Erbiti Segarra (1852-1900), musicien, compositeur et pédagogue, la conférence s'est plutôt centrée sur sa facette d'éditeur, en parcourant l'histoire de l'édition musicale au Pays Basque. Depuis la première impression de musique faite en 1494 par Guillen de Brocar à Pampelune, nous possédons peu de données sur les graveurs, éditeurs et imprimeurs dans le pays. L'édition suivante, une oeuvre d'un musicien basque, Gonzalo Martínez de Bizcargui, se fait à Burgos en 1511; il y eut ensuite beaucoup d'édition faites à Madrid, Paris, Leipzig, etc. Erbiti, dont le principal concurrent était Dotesio, de Bilbao, créa sa maison d'édition à Madrid en 1875, transférée à Saint-Sébastien en 1891, où elle se trouve encore à l'heure actuelle.

Mots Clés: Gravure. Impression et édition. Histoire. Activité au Pays Basque et hors du Pays Basque. Jose Erbiti, éditeur. Besoin de recherche.

* Texto de la intervención del autor en Musikaste celebrado en Marzo de 2000 en Rentería.

Jose Erbiti Segarra musikari eta argitaratzailea hil zenetik ehun urte betetzen direla eta, bere biografia eta lanak ez ezik, argitaratze mundua era gogoratzea nahi izan du Musikastek. Izatez, duela ehun eta hamar urte sortu zuen Erbiti jaunak Donostian izan dugun punterengo musika argitaletxea, eta merezi zuen gogoramena hona ekartzea eta musikaren argitaratzeaz hemen iruzkina ematea. Musikaren historia ikertzen dugunean, musikariak, musikagileak eta hauen lanak azaltzen dira; baina badauzka musikaren historiak hutsuneak eta gutxi landutako alorrak. Musikak mendez mende iraun du, gehien bat, eskuz idatziriko partituretan; baina gero eta gehiago, teknikak ematen dizkigun ahalbide eta lanabesekin baliatuz, inprimatua ere eman zaigu eta argitaratzaileak ere parte hartzen du musika adierazteko eta gugana helarazteko prozesuan. Partitura inprimatuetan argitaratzailearen izena agertzen bada ere, eta ez beti, salmentarako katologoetan ez da datu hau ematen eta zaila gertatzen zaigu edizioaren datu guztiak behar den bezala kontrolatzea. Eta edizio edo argitaraldi bakoitzean parte hartu dutenak ezkutuan geratzen zaizkigu: litografoa, grabauaren egilea, inprimatzailea, ez baita beti argitaratzailea moldiztegi lana burutu duena. Partitura inprimatu bakoitzak azpiko zenbaki bat darama, argitaratzailearen moldiztegi lana burutu duena. Partitura inprimatu bakoitzak azpiko zenbaki bat darama, argitaratzailearen siglekin, beraz, musikalan bakoitzak, inprimatzen denean, bataio marka bat darama identifikatzen duena. Orain, musika ordenagailuz katalogatzeko aukera daukagunean, datu hauek guztiak kontuan izan beharko genituzke, katalogo zehatz eta sinesgarria behar baita burutu.

Parkatuko dizkidazue aurreko lerro aspergarriak, baina Eresbilen artxiboa eredutzat hariturik, musika artxibo guztiek beharko lukete arau batzuekin jokatu orain arte gertatu dena berriaz jazo ez dadin. Euskal Herriko musikaren historia, inprimakiei dagokionetik, behintzat, askoz ere hobeto eta zehatzago ezagutuko genuke aipatu argitaratze mundu horren inguruko datuak bagenitu.

Gutxi dira argitaratzaile eta ingurukoen datuak gure herrian. Baina urriak izan arren, badaukagu datu bitxi eta interesgarri bat. Dakizuenez, Euskal Herrian izan genuen lehen inprimatzailea Bearnotik Iruñera etorritako Arnald Guillen de Brocar izan zen. Inkunabile batzuk argitaratu zituen 1489.ean hasi zenetik. Honen moldiztegitik atera zen 1494.ean musikaz apaindurik daukagun lehen liburua: *Missale mixtum pampilonense*. Tetragrama gorrian agertzen dira, nota beltzekin, mezan kantatu behar ziren zatiak. Handik hamabost urtera, 1511n, Gonzalo Martinez Bizkargik, Burgoseko Fadrique Aleman de Basilea-ren moldiztegian argitaratu zuen *Arte de Canto Llano* eta bertan 1515ean *Intonaciones...* liburua. Garaikidea zen Joan-nes Antxieta-ren lanak ez dira oraintsu arte argitaratu.

Hirurehun urte igaro ziren gure herrian musika inprimatuaren berri izan arte. Ordiziako Kabildoak agindu omen zuen 1776an Iruñean meza batzuen partiturak inprimatzea; baina ez daukagu inprimatze honen berririk. Hogeita bost urte geroago, 1801ean, Vicente Garrido izeneko batek aurkeztu zituen Euskal Herriko Adiskideen Elkartean musika inprimatzeko ereduak. Baina saio hauek ez ditugu ezagutzen, nahiz eta dokumentatuak egon. Aurki ditugu musikagile euskaldunen lanak, atgitaratuak, baina Parisen, Xabier Maria Munibe-ren *Zortzikoa* eta Mazarredo izeneko andreaarena ere, 1813an, Mme. Narcise Paz-en bilduman. Juan Crisostomo Arriagaren *Livre de Quatuors* argitaratu zuen Parisen, 1824an, Philippe Petitek.

Euskal Herrian egindako bigarren argitalpen ezagutua da Donostian Antonio Undianok 1802 inprimatu zuena: Donostiako kapera maisua zen Mateo Antonio Pérez de Albenizek prestatutako *Instrucción metódica, expeclativa y práctica, para enseñar a cantar y tañer la música moderna y antigua*. Eskertzen diot Jose Luis Ansorenari nik ahaztuta neukan honen berri gaur bertan ematea. Gero datorkigu, hau ere Donostian, Ignacio Ramon Barojak egin zuena: Juan Ignacio Iztuetaren *Euskaldun anciña anciñako...* *Dantza*, moldiztegi horretan

INSTRUCCION METÓDICA,
EXPECULATIVA, Y PRÁCTICA,
PARA ENSEÑAR Á CANTAR, Y TAÑER LA MÚSICA
MODERNA Y ANTIGUA,

DISPUESTA POR D. MATEO ANTONIO PEREZ DE ALBENIZ,
Maestro de Capilla de la M. N. y M. L. Ciudad de San Sebastian

Y LO DEDICA Á SU DISCÍPULA

DOÑA MARIA JOSEFA DE BERMINGHAM Y MEAGER.

SAN SEBASTIAN

En la Imprenta de Antonio Undiano, año 1802.

Con la licencia necesaria.

Donostian 1802an Antonio Undianok inprimatutako lan teorikoa.

1826an inprimatua. Gerotxoago, 1848an, Fermin Ruiz de Galarreta salmistaren *Metodo Teórico Práctico de Canto Llano y Figurado* inprimatzen du Iruñean Jose Imaz y Gadeak. Halako ikasbide eta gaiak salmenta ona zutela dirudi, Jose Juan Santesteban maisuak 1864an inprimatu baitzuen Ignacio Ramon Barojaren moldiztegiaren *Método Teórico-Práctico de Canto Llano* eta urte bertsuan *Método Práctico elemental de Solfeo*. Ordurako, 1851tik aurrera hasia zen *Colección completa de Misas, Vísperas e Himnos de Canto Llano* bilduma argitaratzen eta badirudi 1866an, Jose Antonio Santesteban semeak Bilbon zegoelarik, Santiago basilikako organistak, bilduma honen ale batzuk atera zituela. Delmasen moldiztegiaren, agian? Aipatu Jose Antonio Santestebanek, 1862an hasita, kaleratu zuen hain garrantzitsua den *Colección de Aires Vascongados*, Gordon anaiak Donostian litografia lanak eginda eta Parisen Fouquet-ek inprimatuak. Santestebandarren ekintza guztia Donostiako Garibai kalean, 1 zenbakian zeukaten "Almacén de Música" tik zuzentzen eta kontrolatzen zen. Denda eta bulego hau izan zen musika gunean izan genuen, 1854an hasita, handiena eta entzutetsuena. Santesteban semeak *Pudiente* opera 1879an argitaratu zuenean, denda hura Askatasunaren etorbidean, 32. zenbakian zegoen. Baina opera hori ere ez zen Donostian argitaratu, Parisen baizik, E. Dupré-ren moldiztegiaren, Boudonek egindako grabaeukin.

Santestebanek herri musikaren bildumak eta bere musika grabatzeko eta inprimatzeko Parisera bidaltzea ez da batere arraroa, hiriburu horretan egin baitzituen musika ikasketak baita inprimatze teknikarenak. Horrek ez du esan nahi Donostian ez zegoenik grabatzaile eta inprimatzaile trebe eta egokirik. Jose Manterolak 1877an *Cancionero Basco* aleak kaleratzen hasi zenean, eta gero *Euskal-Erria* aldizkarirako, erabili zituen J. Arrieta eta V. Ordozgoitiren litografiak.

Esan dezagun hemen eta orain garai hartan Madrilen finkatuta zeudela lau euskaldun edo musika dendak zeuzkatenak eta hauetatik batzuk grabatzaileak eta inprimatzaileak ere



Bilbon 1895ean Dotesiok inprimatutako R.M. de Azkueren "Vizcaytik Bizkaira" euskal zarzuelaren partitura.


herri kantak bildu eta argitaratzen hasi zenean R. M. Azkue *Euskalzaletze* aldizkarian eta Eleiz-Kantak bildumetan, grabuak Arista izeneko batek egin zizkion, zeinek Jauregiarekin elkartea sorturik argitaratu zuen 1901ean J. C. Arriagak 1819an konposatutako *Marcha militar*. Donostian, Erbiti lanean hasi baino urtebete lehenago eta Santestebandarrak beraiena ia utzita zeukatenean, Diaz y Jornet hasi ziren salmenta eta argitaldaria lanetan 1890ean. Hamar urtera, 1900.ean, A. Diaz y Compañía izena hartu zuen enpresa honek eta Askatasuna-ren etorbidean, 3. zenbakian, jarri zuen denda. Hau izan zen, beste askoren artean, Etxeberria eta Guimónen *Ecos de Vasconia* argitaratu zuena, baina Leipzigeiko Röder etxean egindako grabauekin. Ikus dezakezue, inprimaketak hemen egin arren, eta ez beti, kalitatezko partitura bat kaleratu nahi zenean, Paris eta Leipzigein loturik geunden eta hango grabatzaileen mende. Gauza berbera gertatu zitzaion Juan Montes, Donostiako musika argitaratzaileari, 1910ean Jose Maria Usandizagaren *Mendi mendian* kaleratu zuenean, R. M. Azkueri, *Urlo* opera argitaratu zuenean, eta Jesus Guridiri *Mirentxu* eta *Amaya* operak argitaratzerakoan: Röder-engan Leipzigera jo behar izan zutelako partiturak grabatzeko eta inprimatzeko. Ordurako desagertuak ziren Bilbotik Dotesio eta Donostiatik Jose Erbiti, nahiz eta honek sortutako Casa Erviti jarraitu. Bi hauek merezi dute aurtengo Musikasten gogoramen eta gorazarrea, Dotesiok 1900.enean utzi zuelako musikarekiko ekintza Casa Dotesio elkartearen eskuetan, eta Jose Erbiti urte beretsuan hil zelako. Baina azkenerako uzten ditut bi hauei buruzko iruzkina.

Nemesio Otañoren gomendioz sortzen da Bilbon, 1908an, Lazcano y Mar argitaletxea, 1910ean Mar y Compañía izatera iritsi zena. Otaño, Goikoetxea, Valdes, Beobide, Virgala eta

izan zirenak: Mintegi (1805-1835), Sebastian Iradier (1850-1863), Agirre Anaiak (1871-1874) eta Bonifazio Eslaba San Martin (1868.1884). Azken hau grabatzailea izan zen, Faustino Etxebarria izan zen moduan (1853-1900), eta pianogilea ere. Agirre anaietatik bat Jose Lorenzo izenekoa izan ote zen, Gipuzkoako Batzar Nagusiak 1861ean beka eman ziotena Bartzelonan eta Parisen pianoak agiten ikasteko? Musikastek aurtentzen omentzen duen Jose Erbiti Segarrak ere Madrilen sortu zuen 1875ean *Casa Erviti* izeneko musika denda.

Euskal Herrira itzulita, F. Ripalda aurkitzen dugu Iruñean, zeinek Maya, Gaztanbide eta beste nafar batzuen partiturak inprimatu edo inprimarazi zituen. Iruñean bertan kokatzen da geroxeago Arilla y Compañía, Donostian ere denda zabaldu zuena. Baionan aurkitzen dugu Lamaignere moldiztegia eta gero alargunarena, zeinek inprimatu zuen Sallaberriren *Chants populaires du Pays Basque*. Charles Bordes, Sebastian Hiriart eta beste iparraldeko partiturak Parisen grabatuak eta inprimatuak izan ziren. Bilbon,

beste euskal musikagileen lanak argitaratzen ditu. Baina kaleratu zuen lanik estimagarriena da *Antología moderna orgánica española* (1909) Otañoren gidaritzapean. *Musica Sacro-Hispana* ere argitaldари honek inprimarazi zuen, eta Jesus Guridiren hiru musikalan baliotsuak: *Mirentxu* (1911), *Asi cantan los chicos* (1911) eta *Cantos populares vascos* (1913) ahotsetarako moldatuak. Bilbori dagokionetik ezin dugu ahaztu Gráficas Ordorika, 1932an sortua, zeinek milaka partitura grabatu eta inprimatu dituen hainbat argitaldariantzat. Gaur egun aipatu behar dugu CM Ediciones Musicales, ordenagailuz Juan Solaguren-en gidaritzapean lan egiten duena. Gogoratu behar duguna da, bestalde, hainbat hutsune eta beharizan bete dituela Bartzelonako Boileau & Bernasconi etxeak. Baina ez ditzagun ahaztu etxeok izan ditugun Tolosako Editorial de Música Vasca, Eusko Ikaskuntza, Laborde y Labayen, Lazkao eta Belloc-eko beneditarrek, Txistulari, Dantzari eta Kantuz aldizkariak eta Luis Iruarrizagak sortu zuen *Tesoro Sacro-Musical* eta anaia zen Juan Iruarrizagak argitaratu eman zuen *Repertorio Orgánico Español*. Esandakoak adierazten digu hutsune asko daudela musikaren historiako alor honetan, eta hain interesgarria izanika gaia, ikerketak egin behar direla gure herriko musika inprimatua ondo ezagutzeko.



Portada de la colección "Aires Vascongados" editada en Donostia por los Santesteban a partir de 1862.

* * *

He desarrollado en los párrafos anteriores, de modo conciso y quizá no acertado, los datos que poseo sobre la edición musical en el País Vasco, tema poco estudiado y de escasa bibliografía, y sin embargo importante como base de conocimiento de nuestra música culta, y aun popular editada. El recorrido casi cronológico ha partido del primer libro con música impreso en Pamplona en 1494 por Arnald Guillen de Brocar, a su vez primer impresor del País. Y hemos llegado hasta nuestros días en una visión, seguramente incompleta, por falta de datos, escasa investigación y, por supuesto, por mi desconocimiento que me impulsa a seguir trabajando en ello e impulsar a nuevos investigadores interesados en el tema, que daría materia para una tesis de musicología.

He dejado para este final de conferencia el tratar sobre dos editores de música que tienen que ver con este año 2000 en que además de celebrarse el centenario del fallecimiento de Jose Erviti Segarra, podemos también considerar que fue hace cien años cuando Luis Ernesto Dotesio, parisino afincado en Bilbao, cedió su importante trabajo de edición privado a la sociedad Casa Dotesio que después se convirtió en Unión Musical Española.

Dotesio, nacido en París en 1855 se instaló en Bilbao con un Laboratorio de Análisis Químicos en 1876 lo que le llevó a dedicarse a la litografía musical. Fundador también de Bilbaina de Artes Gráficas tenía los elementos necesarios para lanzarse a la edición musical y así lo hizo imprimiendo la obra integral de Nicolás Ledesma, organista y Maestro de Capilla de Santiago de Bilbao, la *Colección de Cantos Vizcainos* de Bartolomé de Ercilla y cientos de partituras en primera edición o reediciones de planchas de editoriales cuyos fondos adquirió: Antonio Romero, Casimiro Martín, Fuentes y Asenjo, Casa Zozaya, Bonifacio Eslava, Pablo Martín y otras, llegando a ser el más importante editor musical de toda España. Acudió a Röder, de Leipzig, para ediciones de gran tamaño o especialmente cuidadas. El 14 de marzo de 1900 se creó la Sociedad Casa Dotesio, de la que fue gerente, hasta que apartado de ella falleció el 6 de abril de 1915. Espero algún día dar a conocer con detalle la biografía y ediciones de Dotesio. Mientras tanto, el que esté interesado puede recurrir a mi trabajo "La edición musical en Bilbao" (*Bidebarrieta*, 1998) o al libro *La edición musical española hasta 1936* de Carlos José Gosálvez Lara (1995) a quien facilité datos sobre este editor.

Pero lo que ha motivado fundamentalmente mi intervención en esta sesión de apertura de Musikaste ha sido el glosar la figura de José Erviti Segarra, su aportación a la edición y pedagogía musical y como marco de este quehacer aportar algunos hilvanes para tejer la historia de la edición musical en el País Vasco. En el programa que tienen ustedes en mano se da una biografía de Erviti, a la que, abusando de su paciencia, quisiera añadir algunos apuntes.

El apellido Erviti no se limita en la música navarra al hoy homenajeado. En 1596 Pedro de Erbiti era organista de San Pedro de la Rúa en Estella. A finales del siglo XVIII nace en Uharte-Arakil Miguel Antonio Erbiti, organista, primero, de su villa natal, que pasa en 1809 a Urroz y en 1818 a Barasoain, opositando en 1832 a una organista de Estella. Por esas fechas, en 1831, Sebastián Erbiti es organista en Añorbe. Tendrían algún parentesco con Joaquín Erbiti, abuelo de nuestro homenajeado, nacido en Alkoz, de Ulzama, o con su hijo Jose Joaquín, padre de nuestro José, nacido en Elvetea, de Baztán, afincado en Pamplona, cuando nació nuestro músico en 1852, como funcionario de la Secretaría de la Diputación Foral? El caso es que por parte paterna, de Baztán como he dicho, su abuelo era de Ulzama y su abuela Ursula Barrenetxea era de Elvetea de Baztan. Familia euskaldun, sin duda, que algo transmitirían a su nieto e hijo. Por rama materna sus abuelos Martín Segarra y Josefa Villanueva eran riojanos de Haro, y también su hija Inés Anselma, madre de José. Seguramente esto hizo que a la única hija de Jose Erviti Segarra Barrenetxea Villanueva pusieran el nombre de Inés, de apellidos Erviti Bandrés, por ser su madre Fermina Bandrés, donostiarra.

Hijo de esta Inés fue José Manuel Gárate Erviti, que sucedió a su abuelo en la dirección de la Casa Erviti, fundada en Madrid en 1875 y trasladada a San Sebastián en 1891. Fallecido Jose Manuel, son sus hijos los que regentan ahora la Casa Erviti, asentada primeramente en Fueros, nº 2, después en Idiakez (donde al parecer vivió la familia) y por fin en San Martín, nº 28, con sucursal en Loyola, nº 14 y en la calle Mercado, nº 14 de Logroño.

A la biografía del programa hay que añadir que en 1887 José Erviti creó la revista trimestral *El anunciador musical*, importante comunicador de noticias musicales, partituras propias y de otras editoriales, instrumentos musicales, etc. Entre las ediciones propias, muchas por cierto, identificables por el pie de plancha CE+Número, está la primera edición de los Preludios para piano del Padre Donostia, serie iniciada por la Casa Erviti en 1912, tras la muerte de su fundador. Y por supuesto la edición para Banda de *El centenario*, obra con la que ganó medalla de plata en concurso de la Universidad Central de Madrid en 1881 que dentro de unos días, como se viene haciendo desde 1920, se oirá en las fiestas de la Magdalena de Rentería. Un buen recuerdo festivo de este humilde y buen músico y editor que fue Jose Erviti Segarra.